


ZAM

ZORROTZ MORROTZ

43. urtea 2017ko URTARRILA



JON ANDREU

NEKAZARI EKOLOGIKOA

ENE BIZIA ELKARTEA

Allianz



Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

Etxebizitza erosteko eta hura finantzatzeko
prozesuan lagunduko dizugu.

Kutxabanketxebizitzagida.eus

kutxabank



kutxabank
ORAIN

kutxabanketxebizitzagida.eus

- Kontuan hartzeko alderdi garrantzitsuen zerrenda.
- Gastu-simulagailuak, kuota, hipoteka-konparatzailea.
- Intereseko estekak.

Kutxabank SA, Kale Nagusia 30-32, Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan izena emanda. Tomoa: 5226; Liburua: 0; Orria: BI-58729; Folioa 1; Inskripzioa: 1.

GELTOKIA LURPERATU *orain!*

Coordinadora de
grupos de Zorrotza
**ZORROTZAKO TALDEEN
KOORDINAKUNDEA**



 **zorrotza**
auzo elkarte
asoziazioa vecinal

ESTACIÓN SOTERRADA *iga!*

FEVE geltokia lurperatu orain!

Urte berri on! Zoritarrez, FEVEko tren pasabide batean bi auzokidek izandako ezbeharrarekin bukatu genuen 2016a. Haietako bat zendu zen eta besteak, poliki-poliki, izandako zauri larriak sendatzen jarraitzen du. Hamarkadak dira FEVEko trenbidearen lurperatzea eskatzen eman ditugunak, eta jakina, geltokiaren iraupena. Hori bai, lur azpian.

Zorigaitzoko ezbehar honen harira, Herri Mugimenduak denboran jarraipena izango duen kanpaina bat abian jarri hasiko du 2017. urtea. Bi tren pasabide hauen lurperatzea behin betiko lortzeko, kanpaina hau erabakigarria delakoan gaude. Istripu ostean egindako mobilizazioa egin eta gero, mota guztietako bilerak hasi ditugu arazoa behin betiko konpontzeko. Era berean, kartelak egin dira balkoi, leiho eta erakusleihoetan jartzeko.

Halaber, hilaren 26ko udal-bilkuran mozio bat aurkeztuko dugu. Adi kaleratuko diren komunikazio eta deialdietara. Lortuko dugu. FEVE geltokia behin eta betiko lurperatu behar da.



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarri



Zorrotzako kultur aldiakaria
43. zenbakia. 2017ko urtarrila

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behe

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

f facebook.com/ZorrotzMorrotz
t @zorrotzmorrotz

Koordinazioa: Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Ainoa García
- Igor Gutiérrez
- Haizea Olleta
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila
- Lorna Yáñez

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:

- Karlos
- Rodrigo
- Manu Cobo
- Asier Urkiza


Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldiakaria Bilboko udalaren dirulaguntza jasotzen du



Pizzeria Jatetxea



La Viña de Oro
Zorrozoiti 1 - 944 994 227



FARMAKOTEGIA
SUSANA URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46

cafe txinbo

Espezialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

Abenduko istripuak berpiztu du FEVEko geltokia lurperatzeko aldarrikapena

Abenduaren 8an pasatzera zihoazen bi auzokide harrapatu zituen trenak. Bat larri zauritu zuen eta bestea, zendu zen. Gertaera salatzen, 2000 lagun inguru manifestazioan atera ziren, “FEVE lurperatu orain” lelopean, helburu hori lortzeko kanpaina berri honetan abiapuntua izan den ekitaldian.



Igor Gutiérrez

Abenduaren 8ko arratsaldeko eguzkiarekin bi auzokide paseatzera atera ziren. Zorrozoiti bidea zeharkatzen duen trenbidea pasatzera zihoazela trenak harrapatu zituen, biak ere larri zaurituz. Nagusia, 94 urteko andre bat, handik bi egunera zendu zen eta bestea, emakumea eta 78 urtekoa, egoera larrian geratu. Berehala, istripuak auzo osoa asalatu zuen eta Auzo Elkartek eta Taldeen Koordinakundeak manifestaziorako deialdia zabaldu zuten. Hala, abenduaren 12an 2000 lagun inguru kaleratu ziren, “FEVE lurperatu orain” lelopean. Martxa auzo osotik igaro zen, trenbide-pasagune bietan gelditu eginik. Bukaeran, minutu bateko isilunea egin zen, hildako emakumearen oroimenez.

Auzo mugimenduak adierazi duenez, manifestazioa abiapuntu bat baino ez da izan, he-

mendik aurrera borroka iraunkorari eutsiko baitio trenbide eta geltokia lurperatzea lortu arte. Hilabete honetan, leiho eta balkoiatarako kartelak auzoan zehar zabalduko dituztela iragarri dute, auzokide bakoitzak aldarrikapena bere egin dezan. Horrez gain, urtarileko udalbatzan auzo mugimenduaren izenean gisa mozio bat aurkezteko eskaera egingo dute, Bilboko Udalak jarrera irmoagoa izan dezan. Hain zuzen, aldarrikapena bere egin dezan eta bai Foru Aldundiarekin bai Eusko Jaurilaritzarekin batera Sustapen Ministeriora eramateko konpromisoa har dezan eskatuko diote udalari. Izan ere, orain arte erakunde publikoetatik hitz hutsalak besterik ez dituztela jaso salatzen du Auzo Elkartek.

FEVEko trenbidea lurperatzea aspaldiko aldarrikapena da Zorrotzan. Auzotarrentzat lehentasun bat izanagatik ere, azken hamar-

kadetan ez da inongo aurrerapausorik eman norabide horretan, nahiz eta hainbat elkarretaratze, idazki, sinadura-bilketa eta bilera tarteko izan diren. Amaigabeko borroka horretan, FEVE, Espainiako Sustapen Ministerioa, Bilboko Udala Foru Aldundia Bilbao Ría 2000 edota alderdi politiko- en atera jo dute, baina gaia luzaro geldi egon da.

Soluzio-zantzurik gertuenak topatzeko 2010. urtera atzera egin behar da. Izan ere, urte horretan FEVEko lehendakariak Auzo Elkarteari trenbidea lurperatzeko aukera tekniko batzuk aurkeztu zizkion. Funtsean, Bilbao Ría 2000ek urte batzuk lehenago diseinaturikoak ziren, eguneratuta. Segidan, asanblada irekia deitu zen auzokideek aukera guztiak aztertzeko eta, hartan, geltokia gordetzea eta Zazpi Landatik sarbideak eraikitzea jasotzen zituen aho batez hautatu zen. FEVEko presidentearen hitzetan, hogeita hamar milioi euroko aurrekontua erreserbatuta zegoen 2011ko gobernu aldaketa suertatu zenean Espainian – eta horrenbestez, erakundearen presidentzia ere aldatu zenean. Dirudenez, PPK agintea hartu orduko kopuru hori ustez premiazkoagoak ziren obrak ordaintzeko erabili zen. Botere aldaketatik, FEVEren jarrera



itxia salatzen du Auzo Elkartek, erakundea rekin bilera bat eskatu duten bakoitzean ezezkoa jaso dutelako, diru falta argudiatuz.

Egun, alderdi politiko guztiak lurperatzearen alde agertu direnean, diru faltak aitzakia baino ez dirudi. Horren adibide, AHT bezalako obra erraldoi bat aurrera eramateko akordioa dugu: EAjren eskuetan dagoen Eusko Jaurlaritza ordaintzen ari da, gero PPren Gobernu Zentralari eman beharreko kupotik deskontatuko duelarik. Horregatik, erakunde publiko guztiak mugiarazteko altxatu da auzo mugimendua eta oraingo honetan ez dute trena galtzeko asmorik.

Euskal Txokoaren eskutik, bertso afari jendetsuaz gozatu genuen Euskararen Eguna ospatzeko

Zorrotz Morrotz

Urtero bezala, eta beste ekimen askoren artean, Euskal Txokoak Nazioarteko Euskararen Eguna ospatzeko bertso afaria antolatu zuen abenduaren 2an. Beste behin ere, Arsenio jatetxe jantokia bete genuen Zorrotzako euskaltzaleok Iratxe Ibarra eta Jone Uria bertsolariekin aditzeko, afari goxoa dastatu ostean. Halaber, hurrengo egunean, Euskararen Egunean hain zuzen ere, Gure Lurra-



ren eskutik, hainbat ekintzekin gozatzeko aukera izan zuten Gaztetxe aurrean bildutako umeek. Eta egitaraua bukatzeko, eskoletan ere zenbait ekintza kultural egon ziren astean zehar. Datorren urtean, gehiago!

Zorrotzako bi kaleren izenak aldatuko dituzte Memoria Historikoaren Legea aplikatuz

Alfonso Churruca kaia Zirgarien kaia izango da, eta Hermogenes Rojo kalea Clara Campoamor kalea izango da otsailaren 1ean indarrean sartuko den esleipenaren ondorioz

Zorrotz Morrotz

Udalak, Bilboko beste hiru kaleren izenak aldatu eta izen berriak esleitzea erabaki du, Memoria Historikoaren Legea aplikatzeko prozesua betez. Gauzak horrela, Zorrotza eta Olabeaga arteko Alfonso Churruca kaia Zirgarien kaia izango da, eta Hermogenes Rojo kalea, hemendik aurrera Clara Campoamor kalea izango da.

Izen berrien esleipena abenduan onartu zen arren otsailaren 1ean sartuko da indarrean, eragindako pertsonen egin beharreko alda-kei buruzko galderak eta zalantzak helarazteko aukera izan dezaten. Erabakia onartu ondo- ren, aldaaketaren berri eman zaie eragindako pertsonen, auzo-erkidegoetako presidenten zein atarietan itsatsitako InfoBilbao oharren bi-

tartez, eta buzoietan jaso dute aldaaketak egoi- liarrei eta negozioen jabe eta titularrei ekarriko dizkien ondorioei buruzko osoa. Zalantzak argitzeko 010 / 944 010 010 telefonora ere jo daiteke. Komunikazio horietan hiru aldaketa garrantzitsuenak zeintzuk diren azaldu da:

- 1) Egoiliarren agiri pertsonalak (NAN, pasa- portea, gida baimena...): Aldatu egin behar- ko dira berritu behar direnean. Horretarako errolda-agiria behar bada, herritarrei laguntza emateko edozein bulegotan eska daiteke.
- 2) Etxeetako edo lokaletako jabetza eskri- turak: Etxeak edo lokalak saltzen direnean eguneratuko dira eta aldaqueta adieraziko da; Udalak izen-aldaketaren ziurtagiria emango dio interesdunari.
- 3) Zerbitzuak ematen dituzten enpresak eta erakunde ofizialak (ura, argia, telefonoa...): Kasu horietan, Udalak jakinaraziko die zerbi- tzuen hornitzaile nagusiei eta erakunde ofizia- lei (Osakidetza...) kalearen izen-aldaqueta.

Saul Kurto aske da Parisen lau urteko espetxealdiaren ostean

Zorrotz Morrotz

Zorrotzako zenbait plataformatako kidea den Saul Kurto aske geratu zen pasa den aza- roaren 26an Madrilera Barajas aireportuan. Egun horretan bertan harrera txiki bat egin zitzaion auzoan. 2012ko urrian Frantziako po- liziak Puy de Dome departamentuan atxilotu zuenetik egon da preso Saul Frantzian. Hala- ber, ZM aldizkariko 41. zenbakian elkarriket- tatua izan zen.

Clara Campoamor (Madrid 1881- Lausana 1972). Emakumezkoen eskubideak defen- datu zituen politikaria. Union Republicana Femenina sortu zuen eta emakumezkoen sufragioaren bultzatzaile nagusietako bat izan zen Espainian. Sufragioa 1931n lortu zen eta emakumeek 1933ko hauteskundee- tan erabili zuten eskubide hori. Gerra Zibi- lean ihes egin behar izan zuen eta Suitzako erbestean hil zen.

Zirgariak: Andrazkoen taldeak ziren, lau inguru, eta narras eramaten zituzten gabarrak, ilaran. Lan gogorra eta esker txarrekoa zen, eta euren segurtasuna ere arriskuan jartzen zuten. Jarduera hori Biz- kaian egiten zen, itsasadarreko ertzetan, Olabeaga eta Zorrotza artean, ontzien eta bertan sartzen eta ateratzen ziren merkan- tzien inguruan (bakailaoa, artilea, etab.).



Montevideo etorbidea

Bilboko Udalak ipinitako izena 1935ean Basurtu Zorrotza errepideari (lehenago Donejakuren bidea) Uruguay eta Bruno Mauricio de Zabala, Montevideo hiriburua eraiki zuen izan zen durangarra omentzeko. Aita Donostin (Basurtu) hasten da eta FraiJuan/Zorrotza Kastrexana gurutzean amaitzen da. Bere garaian Bilbon sartzeko (auzotik beti Bilbora goaz) bide nagusietako bat, tranbia lehenago, ezkeraldeko zein enkarterrialdeko busek, kamioiek eta oinezkoek (gaur egun erosoago) asko erabilia.



Montevideo etorbidea 1927an



Jai-Alai
kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59

ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA



Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

BAR BASARRI



Errazioak, konbinatuak,
pintxo askotarikoak,
eta pintxopote ostegunero
ZORROTZA KASTREXANA, 10

“Hemen euria ez da kalera ateratzeko oztopoa”



NACHO MATEO

Jatorria: Valladolid

Noiztik: 2008

Adina: 36 urte

Lanbidea: Hezitzaile berezia da, baina zerbitzari lanetan dabil

Zorrotzako neska batekin bizitzera heldu zen Nacho Zorrotzara 2008. urtean. Bilbotarron “giza-kalitateaz liluratuta”, Zorrotza oso gustukoa du “behar diren baliabideez betetako auzoa” baita. Poliki-poliki euskarara hurbilduz joan da, lana bilatzeko eta arrazoi kulturalengatik, “euskaldunei haien hizkuntzaz” erantzutea gustatzen zaiolako.

Ainara Garcia

Nolatan eta zergatik heldu zinen Zorrotzara?

Amodioagatik etorri nintzen 2008. urtean. Zorrotzako euskaldun bat ezagutu nuen eta elkarrekin bizitzeko, hona etortzea erabaki genuen.

Gure ohituretara moldatzea asko kostatu zitzaizun?

Egia esanda ez. Pajarillos, Valladolideko nire auzoa, Zorrotzarekin alderatuta, oso antzekoa da. Ohitzeko gehien kostatu zitzaidana euriarekiko jarrera izan zen. Hemen ez da kalera ateratzeko oztopoa, euria ari badu ere, jendea potoan dabil edo kalean bizitza egiten jarraitzen du... Valladoliden aldiz, atertu arte itxaroten da.

Zer iruditzen zaizu Zorrotza? Zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Niri Zorrotza asko gustatzen zait, biziz beteriko eta bizitzeko beharrezkoak diren baliabideez jositako auzoa baita. Gutxien gustatzen

zaidanaren artean, kiratsa batez ere, eta garraiobide publikoaren frekuentzia txarrak dira. Garraiobide ugari izan arren, ordutegien koordinazio kaskarra dute. Gehien gustatzen zaidana, zalantzarik gabe, hemengo jendearen giza-kalitatea. Liluratuta naukazue.

Auzoan egiten diren ekintza ezberdinetan parte hartzen duzu?

Jaietan bai. Baita Zorrotzuzek antolatzen dituen ekintza gehienetan ere, baina zoritxarrez, nire lan- ordutegiak nahiko nukeen ekintza askotara joatea eragozten dit.

Euskara ikastera animatu zara?

Bai horixe, baina euskara zaharra bezain konplexua da. Arrazoi ezberdinengatik pixkanaka-pixkanaka euskarara hurbiltzen joan naiz. Lehenengoa, irakasle eta hezitzaile berezi moduan lan egiteko desioagatik. Hemen go lanpostu askotara aurkezteko nahitaezkoa

da euskararen ezagutza eta titulazioa izatea. Bestalde, arrazoi kulturalengatik. Euskal Herrian bizi naiz, jendaurrean egiten dut lan, eta euskaldunei haien hizkuntzan erantzutea gustatzen zait. Gaur egun, Hizkuntza Eskolako hirugarren mailan nago. Dena den, helduentzat euskara ikastea oso garestia da eta hau hizkuntzaren garapenarako eta irakaskuntzarako akats larria delakoa nago. Ikasi nahi dugu-nontzat erakundeengandik laguntza gehiago eskertzekoa litzateke.

Bilbotarrei buruz ezaguna den irudia errealtateari dagokiola uste duzu?

Nire ustez, bilbotar neurriz gaineakoaren topikoa kanpoan saldu nahi den irudia da. Agian bizitzako arlo batzuetan somatu daiteke hori, baina oro har, ez da horrela. Askotan aipatzen dena eta benetan betetzen den topikoa: borrokalaria, konprometituak eta pertsona onak direla da. Hurbilekoez arduratu eta kezkatzen dira.

Hemen lana aurkitzea nahiko zaila da, etxebizitza garestia da eta, oro har, baita bizitza ere. Nolakoa da Valladolideko egoera?

Hango lagunek esandakoaren arabera lan kontua nahiko zail dago, soldatak eta hitzarmenak kaxkarrak dira eta egunerokotasunean eragin handia dauka. Hori bai, etxebizitzak eta alokairuak hemen baino askoz merkeagoak dira.

Hemen ostalaria zara. Han lan berdina ze-neukan? Ezberdintasun handirik al dago?

Lan arloan denetarik egin dut, irakasle, adingabeko zentro batean hezitzaile, jendaurrean,



ostalaritzan... Ostalaritzan adibidez, ezberdintasun ugari daude hitzarmenean. Soldatak antzekoak dira, baina lan baldintzak ez.

Zeren falta duzu zure herritik? Askotan bueltatzen zara?

Familia eta lagunak falta ditut, haiekin denbora gehiago igarotzea, nire ilobak hazten ikustea... Hiria baino, pertsonen faltan handiagoa dut. Lana dela eta, gutxitan joaten naiz.

Eta bukatzeko. Zure herrian berriro bizitzea gustatuko litzazuke edo hemen geratuko zara betiko?

Hiri hau benetan gustatzen zait. Ni Zorrotzan geratu nahiko nuke, bizitzeko auzo ona baita. ¿Betiko? Batek daki...



ENE BIZIA



Desgaitasunik duten pertsoneri laguntzeko prest

Zorrotzako beste elkarteek ekitaldi eta proiektuetan parte hartzea gustatuko litzaieke baina, beraien egoitzan gertatzen den bezala, hainbat oztopo arkitektoniko daude eta horrek beraien partehartzea auzoko beste jardunaldietan zaildu egiten du.



Testua: Naroa Peña eta Zuriñe Vila
Argazkiak: EneBizia elkarteak

EneBizia elkarteak 2014ko apirilaren 4an Zorrotzan kokatutako irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da. Elkarrekin Zorrotza eta Errekalde auzoetako pertsonekin lan egiten du, nahiz eta bere kokapena Zorrotza auzoan egon. Beraien helburu nagusia desgaitasunik duten edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen gizartaratzea bermatzea da. Horretarako hainbat zeregin burutzen dituzte, haien artean: aholkularitza, baliabide eta giza zerbitzuen bideraketa eta kudeaketa; sentzibilizazio eta dibulgazio kanpainak; memoria, eskulanak... lantzeko tailer desberdinak; autonomia pertsonala eta errehabilitazio fisikoa

eta laguntza, agiri edo diru-laguntza desberdinen kudeaketa, besteak beste.

Erakundea sortu zuten partaide guztiek ezintasunaren bat daukate eta osasun esparruarekin nolabaiteko erlazioa dute. Taldearen zuzendaritza batzordea 6 kidek osatuta dago. Salvador Izaguirre lehendakaria da, Esther Garcia, berriz, lehendakariordea. Beste postu batzuk ere badaude, haien artean: diruzaina, Maria Brosonegi, eta hiru batzordekideak, Maria Concepción Baranda, Luis Cachorro eta Adolfo Gómez.

EneBizia elkarteak boluntarioak asteartero arratsaldeko 17:00etatik aurrera beren egoitza sozialean biltzen dira, Zorrotzako auzo-er

txeko bileretarako gelan, Clara Campoamor izango den kalean. Badira urteak elkartek udalari egoitza egoki bat eskatzen diola. Aurretik aipatutako lokalak soilik 15 metro karatuko tokia du eta elkarteko bolondres eta erabiltzaileen ezaugarriak kontuan hartuta, ez da nahikoa. Gehienek gurgildun aulkiak edota makilak erabiltzen dituzte eta gertatu izan da gurgildun aulkia erabiltzen duten pertsona batzuk ezin izan direla gelara sartu, ateeak ez daukatelako beharrezkoa den zabalera. Hori dela eta, duela hainbat urte udaletxean kontzentrazioak egitea erabaki zuten. Udalak lokal apropos bat eskainiko zien hitza eman zien, baina denbora pasatu da eta oraindik ez dute ezer lortu. Egoera ikusita, berriz ere, kontzentrazioak antolatzea pentsatu dute.

Auzo-etxean biltzen dira asteartero. Gertatu izan da elkarteko kide batzuk bilerara ezin sartzea gelako ateei behar den zabalera ez izateagatik

Jendearen partaidetzari dagokionez, elkartetik jende gazte gehiagoren parte hartzea eskatzen dute, erabiltzaileen batez besteko adina 60 urte ingurukoa baita. Informazio gehiago jasotzeko jo elkarteko webgunera (<http://enebiza-elkartea.webnode.es/>) edota idatz ezazu email bat hurrengo helbidera: enebizaelkartea@gmail.com.

Auzoko beste elkartei dagokienez, esan behar da gehienak inplikatzeko direla baina



Auzo Elkartea dela EneBizia elkartearekin elkarlan handiena duena. Zorrotzako beste elkarteekin ekitaldi eta proiektuetan parte hartzea gustatuko litzaieke baina, beraien egoitzan gertatzen den bezala, hainbat oztopo arkitektoniko daude eta horrek beraien parte hartzea auzoko beste jardunaldietan zaildu egiten du.

Hemendik aurrera, udalak bere hitza betetzea eta ahalik eta azkarren erabiltzaile guztiek oztopo arkitektonikorik gabeko eta haien lana eta laguntza modu egoki batean eskaintzeko beharrezkoak diren instalazio aproposak edukitzea espero dute.

Restaurante Arsenio
 Pintxo askotarikoak
 Menu bereziak (enkarnez)
 Eguneko menua

Tfno. 94 497 10 03
 Hermógenes Rojo, 6
 48013 BILBAO

Regalos Omega
 oparidenda

Fra Juan 19
 Omega galeriak
 Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com

MADNESS KAFETEGIA
 Elena eta Javier
 Zalbidea estrata, 5 - atzea
 ZORROTZA
 48013 BILBO

MADNESS

Tel. 94 441 62 75

JON ANDREU

Nekazari ekologikoa. Jon eko-ren arduraduna

“Lanbidea baino, bizimodu bat da niretzat nekazaritza ekologikoa”

Jon Andreuk betidanik izan ditu landa eta mendia gustuko. Ingeniaritza eta enpresa-ikasketak hasi zituen, baina aspertuta, Nekazal Eskolan izena eman eta bere betiko pasioari ekin zion. Enpresa batzuen negutegietan urte batzuk lanean eman ondoren, nekazaritza ekologikoan murgildu zen bere kabuz laz, 31 urte zituela. Baserrien prezioa dela eta, zaila ikusten du lantzeko lur eremuaren ondoan bere baserria izateko ametsa gauzatzea. Egun hori heldu bitartean, Loion aritzen den Zorrotzako baserritarra eta bizilaguna da “Jon eko”.

Testua eta argazkiak: Aitor Marin



Nola sortu zitzaizun nekazaria izateko nahia?

Betidanik oso gustuko izan ditut mendia eta ortua. Ingeniaritza eta enpresa-ikasketak hasi nituen, baina ez nituen gustuko eta Nekazal Eskolaren berri izan nuenean, zalantzarik ez.

Zenbat urte eman dituzu lanbidean? Gogorra dela esango zenuke?

Dagoeneko zortzi. Urte eta erdi Jon eko-n nire kabuz eta lehen beste enpresa batzuetan. Gogorra? Tira, ez dut inor engainatu nahi. Egun osoa ematen dut, argia dagoen bitartean, batez ere udan produktu gehiago baitago. Esklabua da, ez dago jaiegunik... Ideia bat egitearren, azken urte honetan ez naiz egun bakar batean ere gelditu. Gehienetan etxera leher eginda heltzen naiz, baina pozik.

Zein izan zen hasierako oztopo nagusia?

Lurra erostea. Aspalditik nire kabuz zer edo zer jartzeko asmoa nuen, baina lantzeko lurra garestia da. Aldundiaren laguntzaren bidez lortu nuen. Hainbat udalek landu gabe dauden landa eremuak alokatzen dizkigu Aldundiaren bidez. Ondoren, negutegiarako inbertsioa egin behar da, eta erosleak bilatzea da azken oztopoa. Kristoren ahalegina egin ondoren, kalitateko produktuak ekoizten ditudala konturatu orduko... nori saldu? Eskerrak momentuz ahoz-ahokoak oso ondo funtzionatu duela.

Nekazaritzatik ba al da bizitzerik? Lanbide honetan jarraitzeko asmoa duzu?

Posible da bizirautea, kar, kar... Honetan sartzen denak badaki ez dela diru asko ateratzeko modua. Hau lanbidea baino, bizimodua da. Lanera etortzen naiz, bai, baina amari egun-pasa noala esaten diot. Jarraitu? Jaki-na! Ahalik eta denbora gehien. Gastuetarako ateratzen dut, eta gogoko lanbidea izatea oso garrantzitsua da.

Zerk bultzatu zintuen nekazaritza ekologikoan murgiltzera?

Lanean egondako negutegi guztiak nekazaritza konbentzionalekoak ziren, eta asko eta asko, hidroponikoak, ez dute ezta lurrik ere. Zorua porlanezkoa da eta perlitazko taulak dituzte, eta landareak kimikoen bidez elikatzen dira. Mila litroko upel batean sartzen dira landareen elikagai guztiak: nitratoa, sulfuro



potasikoa... Maskara beharrezkoa da, hor ez baitago arnasterik... Produktu guztiak berdin-berdinak ateratzen dira, perfektuak! Baina nik ez nuen horrelakorik nahi. Zer edo zer ez-berdina nahi nuen, ez usainik ez duten gaur egungo frutadendako produktuak ekoiztu. Azkenaldian nekazaritza ekologikoa bogan da-goela ematen du, beraz...

“Gehienetan etxera leher eginda heltzen naiz, baina pozik. Lanera etortzen naiz, bai, baina amari “egun-pasa” noala diotsot ”

Zenbat lur lantzen duzu Jon-ekon eta zein da gehien saltzen duzun produktua?

2 mila metroko negutegia daukat eta aire zabalean beste 4 mila metro lur lantzeko. Gehien saltzen dudana, tomatea da, uda garaian. Dena den, nekazaritza ekologikoan, sasoiaren diren produktu guztietatik apur bat izaten da beti. Lan egin dudana beste negutegi batzuetan produktu bakarra ekoizten da, baina horrek lurra eta landarea behartzea dakar, eta neure burua egunero gauza bera egitera behartzea. Errazagoa da, produktu bakarra kontrolatu behar baita, baina aspergarriagoa ere bai.



Zelan baloratzen duzu orain arteko Jon ekoren ibilbidea?

Oso pozik. Jendeak ondo hartu du eta hori da jarraitzeko gogo gehien ematen didana.

Beste nekazarirekin harremanik al duzu?

Bai, Aldundiak lur-bankua martxan jartzean, lur eremu hauek eskaini zizkidatenean, ni bezalako beste bozpasei mutilei ere eskaini zieten horrelakorik, eta harreman ona dugu gure artean. Landatzeko eskariak egiteko batzen gara merkeago eskuratzeko eta elkarri laguntzeko prest gaude beti.

“ Bezero gehienak nire lurraren albotik paseoan ibili ohi den herriko jendea edo Zorrotzakoak dira gehien bat ”

Eta nolakoa da kontsumitzaileekiko harremana?

Harreman zuzena, bitartekorik gabekoa. Haiek etortzen dira hona erostera (uraza edo dena delakoan artean ibil daitezke, nahi dutena aukeratu eta moztu eta ematen diet momentuan) edo ni joaten naiz haiengana banatzera. Bezero gehienak paseoan nire lurraren albotik ibili ohi den herriko jendea edo Zorrotzakoak dira gehien bat. Zorrotzakoei, astero whatsapp

bidez bidaltzen diet dauzkadan produktuen zerrenda eta egun horretan edo hurrengoan, etxera eramaten dizkiel.

Nekazaritza ekologikoak garesti-ospea dauka. Egia al da hori?

Apur bat garestiagoa izan daiteke, baina aintzat hartu behar da guri landarea garestiagoa ateratzen zaigula, erabiltzen ditugun produktuak naturalak direla... Nik bietan egon naiz lanean eta lan egiteko modua erabat ezberdina dela ziurtatu dezaket. Nekazaritza ekologikoan ereindakoaren %60 jasotzen da. Kimikoak erabiltza, berriz, %120. Baina merezi du? Zaporea, usaina... berdina al da? Bestetik, gune komertzialetan saltzen den nekazaritza ekologikoa gune bereko konbentzionalarekin alderatuz gero, bada garestiagoa, baina nekazariongan etortzeko aukera dago. Adibidez lekak, nik hemen ditudan baino garestiago ikusi ditut askotan Zorrotzako supermerkatuetan.

Elikaduran kalitatearen bila dabil eroslea?

Gehienetan erosteko ahalmenaren arabera delakoan nago. Logikoa da hilabete bukarara zail heltzen denak Eroskiko tomaten merkeena erostea, nahiz eta tomate horrek tomate-zaporea ez izan. Gutxienez, tomatea jaten du... Baina ahal duen edota ondo eta osasuntsu jan nahi duen gero eta jende gehia-

go dago. Azken finean, eta lehen esan bezala, zaporea, usaina... oso ezberdinak dira.

Edozein fruta eros daiteke edozein urtarotan. Logikoa al da hori?

Ez, inolaz ere, ez. Fruta gehienak bero egiten duen herrietatik ekarriak dira, edo berogailudun negutegietan haziak... Baina horrek guztiak landarean eragina dauka...

Nor da nekazaritza ekologikoa gehien bultzatzen duena: zuek nekazariok, erosleak edo instituzioak?

Nekazariok zalantzarik gabe. Oro har gero eta kontzientzia gehiago hartzen ari da gizartea, baina lan handia dago egiteko. Askok ez dakite ezta zer jaten duten ere. Dena kimiko eta faltsua da, eta horregatik jakiek ez dute izan behar duten zaporea. Etxeetarara heltzen diren fruta gehienek hogeitabost tratamendu kimiko dituzte eta distiratsu egoteko ezkoztatzte berezi bat... Kimika hori guztia jaten da... Elikadura bizitzaren oinarria da, nahiz eta askotan ahaztu.

Zelan baloratzen duzu gobernuen nekazal-politika?

Gaizki. Ahaztuak gaude. Lehen sektorea gara. Denok jan beharra dugu, baina nekazariok ez dugu inolako laguntzarik. Orain dela berrogei urteren antzera gaude. Eskerrak, gutxienez nik Aldundiaren laguntza izan nuela lurra eskuratzeko! Bizkaiko Nekazari Ekologikoen Elkartek antolatzen duen diru-laguntzaren bat badago eta ingurugiro laguntzaren bat edo beste ere, baina egia esan, ez dira oso lagungarriak. Azkenean, bizitza aurrera atera behar dugu bakar-bakarrik.



LABURREAN

“Ez dut neure burua lantegian edo ordenagailu aurrean irudikatzen”

Nekazaria izango ez bazina, zer izango zinateke?

Ba ez dut inoiz pentsatu. Ideiarik ez, baina lantegi edo bulegoren batean, inolaz ere ez.

Ba al duzu beste zaletasunik?

Arrantza oso gustukoa dut. Neguan gauero noa arrantzan, baita astebururo ere. Eta lagunekin egotea, gelditzen zaidan denbora apurra.

Janaririk gustukoena?

Asko. Jateko arazorik ez nik, baina barazkiak eta arraina jaten ditut gehien.

Jon-eko

620 63 92 67

www.facebook.com: @Jon eko



Diseinu grafikoa:

irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net

PAGOTXA

50 €

ibarretaluxury
OPTICA

C/ Estrada de Abaro, 5
944 27 40 80

BETAURREKOAK

**TOM FORD
CARRERA
POLICE
ARMANI
LOEWE
FERRARI
ARNETTE
FURLA**

“Harrapari” hanburgesa



Osagaiak:

Oilasko haragia,
gazta,
maionesa,
uhaza,
tomatea,
kipula,
arrautza frijitua
hirugiharra.

Ogia labean sartu 200 gradutan hama-
bost minutuz. Oilasko haragia frijitu, eta
kipula potxatua, hirugiharra eta arrautza
frijitua plantxan egiten dira. Dena bukatu-
ta dugunean, ogi artean sartu eta prest
dugu gure hanburgesa! On egin!

Zailtasun maila	Erraza
------------------------	--------

Prezioa: 5 €

ALBOKA TABERNA



Orain dela gutxi berriro irekia, kide berria du
Jabik Alboka tabernan: Vivian neska jatorra eta
langile fina hain zuzen ere.

Eguneko menua astegunero. Maila handiko
plater xumeak, (bezeroen hitzetan) eta oso pre-
zio onean. Menu erdia: 5 €; menu osoa: 8 €.

Ostiralero, arratsaldeko 8etatik aurrera, txistor
pintxoak dohainik zure edariarekin.

Astean, goizeko 8etatik gaueko 10ak arte za-
balik. Astebururo, beriz, 9etatik gauerdiko
1:30era dago zabalik; eta 23.30etan argiak
itzaltzen dira eta handik aurrera, musika eta
giro ona topatuko dituzu Albokan, eta kubatak
4 euroan.

Soka kalea, 5

48013, Zorrotza

Jabi eta Vivian

Telefona: 94 499 29 43

Eskariak whatsapp bidez: 697 26 53 64

CAFÉ LAS NAVAS

**Pintxo
gozoak
egunero**

Zorrotza Kastrexana
errepidea 4

TABERNA INDARRA

Abaro estrata, 10

Bar La BOMBA

Zorrotza Kastrexana errepidea 33



**alboka
taberna**

Soka kalea, 5
Zorrotza
48013 BILBO

Tfno. 94 499 29 43

Doinua:

Martxa baten lehen notak

Herri-printzak

Luhuso eta Grezia orain

sinonimoak al dira?

Harresiak erori daitezen

badaukate iniziatiba

ezeren truke dena ematen

egon gabe hor begira

idazle batek Kuba aldetik

bueltatuta jaioterrira

kalera kalera barrukoak

ta bakea Euskal Herrira

hodei ertzean bada herri bat

doa ilunpetik argira

ari eta ari dabilta asko

sortzen horren perspektiba

zein ederra den hautematea

herri txiki honen distira.

Asier Urkiza



Begoñaren itzalpean.

Jose Inazio Basterretxea Polo. Susa. 2016. 200 orrialde.



36ko gerrak irabazle eta galtzaileak izan zituzten; baina galtzaile guztiak ez ziren berdinak, ezta irabazle guztiak elkarren adiskideak ere. Franco epelegia zelakoan, nazien laguntzaz iraultza egin nahi zuten falangista bilbotar batzuen istorio ezkutua dakarkigu Jose Inazio Basterretxeak, gerrako eta gerraosteko pasadizo ezezagunak fikzionatzeko bere eleberri-sortari jarraipena emanez. Horrekin batera, 1986an, 40 urte baino gehiago igarota, Suitzatik datorren emakume eder eta misteriotso bat agertzen da detektibe pribatu bilbotar baten bulegoan, bere gurasoak nor ziren

jakin nahi duela-eta. Bi hari horiek uztartuz, kontakizun bizi bat ondu du egileak, noiz umoretsu noiz sentsuala, historiaren alderik ilunenak argituz eta bizitzarekiko maitasun-taupadak transmitituz.



Ero: Garaiz gaude.

(Autoekoizpena) 2016



4 urte ostean Bilbo eta Mungiako musikariz osatutako rock taldea diska berriarekin datorrigu. Iazko udan grabatu eta pasa den Durangoko Azokan aurkeztu zuten. "Garaiz gaude" izenburupean musika eta hitzak arma hartuta kritika soziala egiteko berandu ez dela esaten digute, gauzak ez direla aldatu alegia. Denbora nahikotxo pasatu da "Airean mugak" aurreneko

lana argitaratu zenetik, baina berandu ez da esan behar direnak esateko. Estilo aldetik, nahiz eta rock alternatiboaren korrontean igeri egin (diskari izenburua ematen dion abesti itsaskorra adibidez), rap-metal ("Neska", emakumearen eskubideen aldekoa) edota pop-rock melodiak (ederra Itoiz taldearen "Hegal egiten" abestiaren moldaketa) entzun daitezke. Soinuaren aldetik esan dezakegu naturala eta organikoagoa dela aurreko lanarekin alderatuz. Horri lotuta, hainbat alditan entzun beharreko materiala dugu honako hau. Luxuzko gonbidatuak izan dituzte honakoan: Fer Apoa (Kuraia, Estricalla...) edota Aintzane (Green Eyes). "Biok" taldeko Ibonek ere koruak sartu ditu hainbat abestietan.

**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

GORA HERRIAI

★ **independentzia!**
SOZIALISMOA!



ASKABIDE
kultur elkartea
ZORROTZA

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarri. Eskerrik asko!



Eskola publikoa Zorrotzarako

Urte batzuetatik hona, auzoko edozein hurrek 0 - 18 urte bitarteko bere heziketa-ibilbide osoa egin dezake etxetik hurbil, auzotik irten gabe. Haurreskolan hasita, Fray Juan edo Zazpi Landa eskolan jarraitu, eta Institutuan amaituz. Horiek guztiak gainera, ikastetxe publikoak izanda.



Euskal irakaskuntza publikoaren printzipioak errepasatuko ditugu laburki:

- Eskola publikoa eta denontzat.
- Gizarte modernoaren beharrei erantzuteko kalitatezko heziketa bermatzen duen herri-eskola.
- Gure seme-alaben euskaldunizazioa ziurtatzen duen herri-eskola, etorkizunean aukera berdinetan bizi izateko.
- Eta bai, noski, eskola publikoa, inklusiboa, desberdintasun sozialen eta muga pertsonalen aurka dagoena (fisikoak, psikikoak...), haiek konpentsatzen saiatzen dena.

Eta hau da gure auzorako, gure seme-alabentzat, nahi dugun eskola. Horregatik auzotar talde batek, Zorrotzako Taldeen Koordinakundeko parte-hartzaile eta hezkuntza eremu desberdinekin erlazionatuta, erabaki dugu aldizka biltzea eta, Administrazio aurrean, beharrezkoak ikusten ditugun hobe-kuntzak erreibindikatzea. Premiazkoenen artean bi hauek azpimarratzen ditugu:

1. Gure auzoko ikastetxe publiko guztiak Zazpi Landako zonaldean kokatuta daude. Beraz, derrigorrezkoa da, Zazpi Landa parte altueneraino Ferialeko zonalde-tik doako eskola-garraio zerbitzu egokia izatea, bai eskoletako ikasleentzat, baita haurreskolaraino joan behar duten familientzat ere.
2. "Lehen orduko ikasgela" irekitzea lehen hezkuntzako bi ikastetxeetan edo haietako batean gutxienez, Administrazioak diruz lagunduta. Beharrezko zerbitzua da auzoko familia askotarako eta orain ez dago.

Topaketa hauetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Zorrotzak, gure auzoak, behar gaitu eta.

Ana Elena Altuna

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Hizkuntza guztietan gertatzen den bezala, euskaraz ere badaude pertsonen orientazio sexuala adierazteko balio duten baina iraingarriak diren hitzak. Adibidez, hitzarik ohikoenak, gazteleratik hartutako "mari-koia" eta "bollera" dira. Zortez, hitz hauek iraindu nahi dituzten pertsonak, terminoak bereganatu eta auto-izendaketa egiteko erabiltzen dituzte.

Beste adibide bezala, emakumeei eta ez gizonezkoei suposatzen zaizkien keinuak edo ohiturak dituen gizona izendatzeko "Maritxu" hitza erabiltzen da. Gizonezkoei

sozialki suposatzen zaizkien jarrerak dituen emakumea izendatzeko, atsogizona hitza dugu, mespresuzko kutsuarekin.

Hitz hauen erabilera zuzena egiteko, lehenengo eta behin, hitz hauen eta parekoen erabilera iraingarria dela ulertu behar dugu. Bigarren, erabili beharko genituzkeen hitzak eta bakoitzak duen inplikazioa ezagutu beharko genuke: gay, lesbiana, bisexuala, transexuala, transgeneroa, queer...

Baina beti ere, edonorren orientazio edo identitate sexuala adierazteko, errespetu handiz egin beharko dugu. Salbuespenik gabe.

SALAKETA ARGAZKIA



Bandalismoa eta Udalaren arduragabekeria

Jon Urzelai parkean izandako baldarkeria abenduaren 30ean egina da. Auzo Elkarteak berehala ohartu zuen Udala, baina bi aste pasata oraindik errepararatu gabe zegoen. Bilboko erdialdean gertatu izan balitz, hainbeste denbora emango zukeen konpondu gabe horrelako baldarkeriak? Ezetz uste dugu.



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12



Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

Erabakietan parte hartu nahi dugu

2017. urtean Euskal Herrian zehar “erabakiaren aroa” zabalduko da. Gure auzoan, beste leku askotan bezala, Herri Mugimendua aspalditik erabakitzeko gaitasuna herritarrei itzultzea eskatzen dabil. Gogora etortzen zait, adibidez, argazkiko 90eko hamarkadan Auzo Elkarteak egindako manifestazio jendetsu hura: “Queremos participar en las decisiones” lelopean. Auzoko gauzak auzoan erabakitzeko eskatzen



2017a garrantzitsua izango da. Sobietar iraultzatik 100 urte eta Che Guevara hil zutenetik 50 urte beteko dira... Baina urteurren historikoez gain badira ere aurten orainarekin eta etorkizunarekin lotura duten aspektuak. Aurten, 30 urte eta gero, auzoko frontoia behingoz estali egingo dute. 1988ko Auzo Elkarteak buletinean (Auzotegi) Bilboko udalak frontoia estaliko zuela jada agertzen zen. Askotan egiten duten bezala, hitza eman baina ez zuen bete. Eta horrela ia hiru hamarkada pasatu dira. Instituzioak gero eta urrunago daude pertsonengandik, baita erabaki guneak ere. Udaletxetik hasi eta Banku Zentral Europearrera helduta erabaki guneek gure eskuetatik ihes egiten dute.

Erabakitzeko ahalmena eskuratzea estrategikoa da gure bizitzan eragin zuzena daukalako. 2017. urtean Euskal Herrian hainbat galdeketa ezberdinak burutuko dira herritarren iritzia zuzenean jasotzeko. Martxoaren 19an Astigarraga, Hernani, Erreterria, Lezo, Oiari-

tzun, Pasaia eta Tolosaldeko 28 herri erabaki ahal izango dute. Udaberrian Arrigorriaga, Larrabetzu, Lasarte-Oria, Usurbil, Legutio, Orozko, eta Otxandio herriek eta Busturialdea, Debabarrena, Durangaldea eta Lea-Artibaiko eskualdeek erabakiko dute.

Udan galdeketen tsunamiak bere bidea jarraituko du: Basaburua, Araitx, Arano, Areso, Betelu, Goizueta, Larraun, Leiza eta Lekunberri pasako da; baita Bortzirak eta Sakana eskualdeetatik ere. Udazkenean berriz Galdakao, Erandio, Leioa, Portugalete, Muskiz eta Getxon burutuko dituzte galdeketa.

2017. urtean Euskal Herrian zehar “Erabakiaren aroa” zabalduko da eta 2018-2019an galdekete jarraituko dute herri guzti-guztietara zabaldu arte. Zorrotzatik ere pasatu beharko da, jakina. Herri Mugimenduan ibiltzen garen pertsonen ez zaigu batere arrotza egiten “erabaki nahi izatea”, izan ere badakigu jendarte aktibo eta protagonista baten etorkizuna eguneroko jarretan, erabakietan eta konpromisoetan garatzen dela.

Gure auzoan, beste leku askotan bezala, Herri Mugimendua aspalditik eskatzen dabil erabakitzeko gaitasuna herritarrei itzultzeko. Gogora etortzen zait, adibidez, argazkiko 90eko hamarkadan Auzo Elkarteak egindako manifestazio jendetsu hura auzoko gauzak auzoan erabakitzeko eskatzen, “Queremos participar en las decisiones” lelopean. 2017an ongi etorria Zorrotzako frontoi estaliari eta Euskal Herriko galdeketa guztiei. Honek hasi besterik ez du egin. Gure esku dago.

Saul Kurto

Zorrotzako hainbat gazte Midelt eskolaren hobekuntzan arituko dira udan

Zorrotzako 18 eta 25 urte bitarteko hamar gaztek "Initiative Association without borders" elkartearekin batera kolaboratuko du abuztuan, Marokoko Midelt auzoko eskolaren hobekuntza lanetan. Eginkizuna eraikinaren azpiegituran haurtzarolari eta gaztarolari zuzenduko zaizkien aisialdi ekintzetan oinarrituko da, baita ohitura osasungarriak sustatzeko lanetan ere.

Ekimena, "Zorrotzatik Mundura" egitasmoaren barnean dagoena, Gure Lurra Elkartek sustatuko du eta bi helburu izango ditu: bate-tik, gazteen arteko elkartrukea; bestetik, mundu-ko herri zein hirietako eskualde txikiak garatzea. Hala, urtero, ekintza bana egingo dute. 2011n, eta proiektu berberaren testuinguruan, 1300€ bildu zuten Matsatse Elkarteari laguntzeko xedearekin. Modu horretan, Mozanbiken malaria hedatzearen kontra ezinbestekoak diren moskiterrak lortu ahal izan ziren.

Oraingo honetan, eta norbanakoak egin ditzakeen ekarpenez gain, gazte hauek beraiek egingo dute eskualderako jautzia, aipatutako elkartearen lana bertatik bertara ezagutu eta abuztuan, 3 astez, boluntario lana eskaintzeko.



Datozen hilabeteotan, talde eragileak hainbat ekintza burutuko ditu beharrezkoa den finantziazioa lortzeko. Besteak beste, "Zorrotzatik Mundura" elkartasun-merkatua garatuko dute Zorrotzako Azoka parkean martxoaren 25ean zein 26an.

Animatu eta parte hartu!

Zer eraman ahal dut?

Arropa, osagarriak, jostailuak, kirol-materiala, liburuak, altzariak, musika, papergintza-lanak...

Non eta noiz eraman ahal ditut gauzak?

Zorrotzako Auzo-Etxean, astelehenetan eta ostegunetan 17:30etik 19:30era, urtarrilaren 9tik otsailaren 16ra bitartean.



ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98



CaixaBank

Zeu zara izarra

Abaro estrata, 5
48013 Zorrotza (Bilbo)
Tel. 94 459 00 90
www.caixabank.es



BAR RUDI

ATHLETIC CLUB

MARADONA

HERMOGENES ROJO, 2



Asier

Umeak izanda, beraiengan zentratzen da guztia eta Olentzerok haiengan jarri du arreta osoa. Hau da, jostailu mordo bat jaso dute etxean!



Soraya

Jaka bat eta krema batzuk eskatu nituen eta horixe ekarri dit. Beraz, oso pozik nago.

Zer eskatu diozu Olentzerori?

Eskatutakoa ekarri dizu?

Iratze Pérez



Gorka

Ba egia esan, nik ez nion ezer eskatu, baina hala eta guztiz ere, eskuzabala izan da eta arropa eta diruzorro bat ekarri dizkit. Urtero bezala, oso ondo portatu da Olentzero.



Aroa

Ez nuen ezer konkreturik eskatu, baina hala ere, etxe askotan jaso ditut opariak: arropa, jostailuak, eta gehien gustatu zaidana, panpina bat izan da.



Yolanda

Kremak eta edertasun produktuak eskatu nizkion eta horixe bera ekarri dit. Oso ondo portatu da. Inolako kexarik ez.



Taberna AITOR
José eta Juan Carlos
Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96

AUTO ESKOLA KAIKU



Liderra Eskerraldean
Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10



MESÓN LUNA

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Hermógenes Rojo, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

100% AFECTIVO

Eman izena
Matricúlate



EUSKARA IKASTAROAK • CURSOS DE EUSKERA

Hiruhileko ikastaro trinkoak • Cursos intensivos trimestrales

Astean 5, 4, 3, 2 ala egun 1 día a la semana

Ostiralean ala larunbatean • Viernes o sábado

Mintza taldeak

4. maila (C2)

Autoikaskuntza • Autoaprendizaje

BERBALAGUN egitasmoa • Proyecto BERBALAGUN

DIRU-LAGUNTZAK / BECAS

EUSKO JAURLARITZA:

maila egiaztatuz gero.

Gobierno Vasco, acreditando un nivel

BIZKAIKO ALDUNDIA:

deskontu-bonuak.

Bonos descuento de la Diputación

BILBOKO

UDALA

harrapa zank

2017

Harrapatu zure aukera!

Eman izena www.harrapazank.eus webgunean



DISTIRAZANK



500€ko
2 sari
kategoria
bakartzean!

PROBAZANK

Bitrobot
tailerrak



Nire lehenengo
errobota



Bideojokoan
tailerra



Popping
dantza

Sortuzank
tailerrak



Graffiti



DJ



Sukaldaritza



Smartphone
argazkilaritza

Eta uda ostean sorpresa eta nobedade gehiago!

- Klikazank ginkana!
- Izarren hautsa!
- Harrapazank txalofest

Informazio gehiago: www.harrapazank.eus



e-harritza
topagunea

B

Bilbao